

Joanes Etxebarria *Maule*

Tony Ferrik (1973, Normandia, Frantzia) hainbat liburu baditu idatziaz bereziki gai penalak, zigorrak eta zaintza gaitzat harturik. Hiperzaintzaz aritu da lan batean baino gehiagotan, eta eskumutur elektronikoen aditu gisa agertzen da Frantziako prentsan.

Nondik heldu zaizu besteak beste zaintza, zigorra eta presondegia ikertzeko interesea?

Gai horiekiko dudan interesa bizpahiru eraginetatik heldu zait. Batetik, filosofia doktoretza prestatzen ari nintzela unibertsitatean deskubritu nituen gaztugien diziplinaz, araubidez eta kontrol gizarteraz eraman diren gogoetak. Bestalde, presondegiko gizarteratze aholkulari gisa egiten dudan lanean zigorraren garapena eta gauzatzea terrenoan bertan beha ditzaket. Azkenik, gisa bateko kontzientzia filosofiko herritar eta politikoa batetik ere badatorkit interesa, gaur egungo errealtatei atxikirik eta giza eskubideei, pentsamenduaren independen-tziari, garapen nahiari eta oinarriko askatasunen errespetuari duedan kuriositateari loturik.

Diogu eskumuturreko elektronikoa ez dela neurri ona. Ba ote dira zigor erangikorragoak besteak baino?

Frantzian eskumuturreko elektronikoa bereziki baliatua da presondegia zigor baten gauzatze modalitate gisara, gutxienez perspektiba horrekin plantan ezarri zen 1997an –Frantziako presondegiratze kopuruetan berriz goia jo zuen– eta 2003. eta 2004. urteetan garatzen ziren zaintza neurri hori, oroitaraz dezagun, zigortuen etxeetan gauzatzen dena. Gaur egun, hiperzaintzaren eraginez, haren baliatzeak zinez aniztu dira, eta ez zaie gehiago soilik kondenatuak diren pertsonen ezartzen. Adibidez, adingabeei edo auzipetuei –ustezko errugabeak– ezartzen ahal zaie.

Frantziako legediak presondegiratzeari eskaintzen dizkion alternatiben artean dira nagusiki –bakan onartzen den baldintzapeko askatasuna eta zigor txikiak dituztenei ezartzen zaien interes orokorreko lanaz gain– zaintza elektronikoa, erdi askatasuna eta kanpoko espetxealdia. Azken horri diot baliorik handiena ematen arrazoi desberdinengatik. Nagusiki, kanpoan proiektuak plantan ezar daitezkeelako, kondenatuak gizarteratze zibileko hezitzaileek segitzen dituztelako edo presondegiko administrazioaz bereiz diren



HITZA

«Nork sinets lezake presondegia gizarteratzen duela?»

Tony Ferri • Filosofoa eta presondegiko gizarteratze aholkularia

Gerphau laborategi zientifikoan, ikertzaileak hitzaldia egin zuen atzo Baionan ‘Zein da zigortzearen interesea?’ galderari ihardetsiz. Hitzaldi mamitsu horretan 2018an aterako duen liburua aurkeztu du.

elkarteekin partaidetza harremanak dituztelako. Eskumuturreko elektronikoa, berriz, elementu teknologikoa elementu humanoaren ordezkotza gisa ezartzen du, etxean egotera behartzen du kondenatua –bizi eta loratze gune bat presondegia bilakatzen du–, eta eskala industrialean *distantsiako zaintza* egitera mugatzen da, omen, presondegia husteko eta presondegiratze kostuak txikitzeko. Eskumuturra ez da soilik presondegiratzearen alternatiba bat; gainera, kanpoan bete daitezkeen zigorra ordezkotza lezake. Hainbat ikerketak baieztatzen dute auzietan azken 20 urteetan eskutik erabiltzeko epaileek, presondegiratzen dituzte garai batean delitu beragatik proban ezarriz

gibelapenezko zigorretara kondenatzen zituztenak. Besteak beste, badakitelako maila juridikoan presondegiratze zigorra egokitu daitekeela gerora ere. **Hiperzaintza aipatzen duzu, zabaldu harturik, gizarteratze mailan.** Hiperzaintzak, pentsatzen saiatzen naizenak, erregimen politikoa arrunt singular bat izendatzen du; zeren eta bizi demokratikoaren hainbat oinarri ahuldu edo lumatzen baditu ere, bizi demokratikoarekin *gutxi gorabehera* bateragarria da. Gisa batez, eten gabe mugak maltzurki bultzatzen dituen erregimena da, sekula sobera pasatu gabe, baina lanjorosi hala ere.

Gizarteratze hiperzaintzak tinkatua du: batetik, gaitetik heldu zaion legeak adierazpen eta aska-

tasan indibidualen espazioa estutzen eta txikitzen ditu asintotikoki; bestetik, azpitik, herritarrek parte hartzen dute beti oharatu gabe norberaren zaintzan, beraien datu pertsonalen bilketa menperatzen ez duten instantzien eskuetan ezarritik. Smartphone gehiegizko erabilpen menpeko eta itsuak hori islatzen du: egunerokoa kaiolatzea.

Posible ikusten ote duzu presondegirik gabeko gizarteratze bat? Bai, posible ikusten dut, eta, gainera, beharrezkoa iduri zait, gutxienez presoen %80rentzat. Konbentzimendu hau ez zait heldu konplazentzia edo fantasmagoriaren eraginez; heldu zait azken hamarkadan eraman dudana etengabeko gogoetatik. *Abolir la prison. L'indispensable reforme*

penale (Presondegia abolitu. Ezinbesteko erreforma penala) 2018an agertuko dudana liburuan irakurleari dei egiten diot, hainbat analisi eta agudio erabakikorko kontuan harturik, gogoeta egin dezan nirekin batera, batetik presondegia eredu batzertzearen beharrezko gaitetik, neurritz gaindi eraginikortasunik gabea eta oro har inutilla eta kaltegarria–, eta bestetik, pertsona kondenatuek arduratzeko nehoiz ikusi gabeko modalitate berritzaileak sortez. Gabeziak eragin eta sufriarazteko zigortu bainoago, kontua da delinkuentzia gelditzeko eta biktimen sufrimendua ezitzea eta, beraz, kolektiboki adiskidetzeko manera *hoberena* lortzea. Liburuaren ambizioa da azaltzea zergatik beharrezkoa den botere publikoaren indarra eskatzea, gizarteratze zibil osoaren parte hartzearekin, sistema penala erabat aldatzeko. Posible eta desiragarria da bai kondenatuak gizarteratzea –nork sinets lezake, fede onez, presondegia gizarteratzen duela eta gizarteratze geroa dela, ergel eta zozok ez izan ezik?–, eta bai biktimen kalte-ordainak ziurtatzea. Liburu horretan azbitzuta bezain ezinbestekoa den erreforma penalaren hiru ardatz izanen dira. Berritzailea da, eta eskura dugu.

Zure aholkulari lanak guzak aldatzeko balio ote dizu?

Galdera zaila da. Afera penalak hobetzeko edo aberasteko zentzuan, automatikoki erantzuten banu, erranen nuke ezin duela aholkulariak gisa bat edo bestez zigor instituzioaren baitan posiblearen eta ezinezkoaren arteko mugarik mugitu, ezta berritzailearen edo zaharkituaren arteko mugarik ere. Hain azkarki hierarkizatua den sistemaren baitan, menpeko langilea da. Beste ikuspegi batetik, nahiz eta aholkulariak ez ukan aldaketarako boteririk –ez delako Justiziaren organigraman erabaki hartzailea ez eta diseinatzailea ere–, hain zuzen botererik ez duelako da interesgarria, ezin zaiolako egotzi botere interes pertsonalen zerbitzura ari denik. [Jean-Paul] Sartrek ez zuen besterik eraren intelektual engaiatuz, haren interesa zelakoa eskuetan botere *realik* ez ukatea. Aholkulariaren kasuan, harreman dimentsioak dio ematen ahala loturak sortu edo bersortzeko zigor instituzioen eta herritarren bizitzaren artean, kolektibitatearen, kondenatuen eta haien familien onerako.